

## **KONTROL MOZIOA**

### **Herrerako futbol-zelaiaren irisgarritasuna dela eta**

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Kontrol mozioa 2025eko azaroaren 17an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Herrerako Futbol Zelaia 2026-27 denboraldirako berritua egongo dela jakin genuen maiatza aldean. Horretarako aurreikusitako aurrekontua 3.200.000 eurokoa da. 2.200.000 euro 2025ean eta 1.000.000 eurokoa 2026an. Aurrekontu honen barruan sartzen dira, besteak beste; zelaia bera, bertako argiztapena, ingurua eta harmaila.

Baina hala ere, nahiz eta futbol zelaia eta ingurua berritu, zelaira iristeko egun dagoen irisgarritasuna oso txarra da, eta hori, ondo daki lekua bertatik bertara ezagutzen duen edonork.

Sarrera nagusia errepidetik da, bai ibilgailuentzat, bai eta oinez edo bizikletaz doazenentzat ere. Hortaz, erabiltzaile gehienak, irisgarritasun eta segurtasun falta direla eta autoz joaten dira zelairaino. Hori guztia kontuan hartuta, azaroaren 8an, Ane Oyarbide zinegotziaren adierazpen batzuk irakurri genituen: *“Herrerako futbol zelaiak badu beste arazo larri bat, Udala datorren urtetik aurrera erantzuten saiatuko dena, zelairako irisgarritasuna, alegia”* eta *“Udal Gobernuak azterlan bat idatzi nahi duela datorren urtean, futbol zelaiaren irisgarritasuna hobetzeko”*.

Horiek horrela, honi guztiari buruz galdetu genuen Udal Batzordeetan eta Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkariak erantzun zigun berak ezin zuela Ane Oyarbide zinegotzi ordezkariaren izenean hitz egin. Gainera, zelaira iristeko errepidea oinezko eta bizikletentzako

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

irisgarria egiteko oso gune zaila zela ere esan zigun, eta ulertzen zuela futbol zelaia berritu behar bada, malda eta sarbideari soluzio bat eman behar zaiola.

Hortaz, 2026-2027 denboraldirako futbol zelaia berritua egongo dela kontuan hartuta, zelaira mugikortasun jasangarri batean iristea bermatu beharko genuke. Bertara doazen erabiltzaileak, haur eta gazteak segurtasunez zelaira iristea nahi izanez gero, autoz bakarrik iristeko ez den bestelako bide batzuk irekiz.

Horiek horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIOA** aurkezten du:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Herrerako futbol zelai berria egiten dutenerako, bertara iristeko bideari irisgarri izateko soluzioa emateko.

Donostian, 2025eko azaroaren 21ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
**EH BILDU udal taldeko zinegotzia**